

EB-REN NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA

Baserritarrek ez dute diru-laguntzetatik bizi nahi

Sortzeaz batera hasi zen Europar Batasuna nekazaritza politika bateratua ezartzen, II. Mundu Gerraren osteko elikagai faltari aurre egiteko. Arazoak 90eko hamarkadan heldu ziren, ordura arte nagusi izan zen merkatuen kontrolaren ordez politika neoliberalak gailentzen hasi zirenean. Hogei urte geroago, gaizki banatutako diru-laguntzen menpeko bihurtu da sektorea.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Baserri Bizia



NEURRI EGOKIAK hartu ezean Euskal Herriko lehen sektorea desagertzeko zorian egon liteke. Hori esanez hasi zen orain dela bi asteko ARGIAN Juan Mari Arregik idatzitako *Beste nekazaritza garapen eredu baten alde* zutabea. Baieztapen potoloogia eman dezake, baina bat dator Euskal Herrian nagusi diren nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko sindikatuen ikusmoldearekin. Haiek diotenez, Europatik datozen politikak, eskuarki, baserri tradizionalaren kalterako izaten dira.

EBren Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) baserriarrengan duen eragina etenga-

beko eztabaidagaia da sektorean, baina are biziagoa da erreformak ezartzea egokitzen denean. Aurten, hain zuzen, 2014-2020 epealdirako baldintzak finkatzen ari dira. Batik bat, diru-laguntzak jasotzeko bete beharrekoak. Laguntzak baitira Bruselako politikaren muina, ikusiko dugunez.

Bi hamarkada neoliberalismorantz lerratzen

NPBk 1992tik jasan dituen erreformak “porrot ikaragarria izan dira”, EHNE-Bizkaiako Andoni Garcieren esanetan. “Negozioaren mesederako ekoizpen ereduia sustatzen da, eta



herritarren elikadura ez da ardatzat hartzen. Baliteke, azkenerako, elikagaien hornidura ezin segurtatzea ere”. Garciak gogorarazi du, konparazio baterako, 2003tik hona Hego Euskal Herriko nekazarien diru irabaziak %23 gutxitu direla batez beste. Ikus dezagun zein den egoera honetara ekarri gaituen bidea.

Hastapenean, merkatuaren kontrola

Ipar Euskal Herrian NPBk arautu du laborarien bizimodua azken mende erdian. Izan ere, laborantzari buruzko politika bateratua Europako Ekonomia Erkidegoarekin batera sortu zen 50eko hamarkadaren amaieran, eta Frantzia han zen, NPBren bultzatzaile nagusien artean. “Gerla osteko Europar defizita zen elikaduraren aldetik”, dio ELB sindikatuko Mixel Berhokoirigoinek, “kontsumitzen zenaren %80 baino ez zen ekoizten”. Produkzioari bultzada emateko sortu zen NPB, baita lortu ere. 80ko hamarkada hasierarako, urtez urte elikagai soberakina zeukan Europak. Besteak beste, bertoko laborarien jarduna babestuz lortu zen hori. Berhokoirigoinek dioenez, NPBren lehen hamarkadetako ezaugarri nagusia merkatuen kontrola izan zen, ekoizleentzat prezio duinak segurtatzea barne.

“Aldaketa 1992an hasi zen”, dio ELBko kideak, “eta arrazoi politikoengatik eman zen”. Andoni Garciak ondo gogoan du garai hura, ordurako Hegoaldeko baserritarrak ere bai baitziren NPBren menpeko eremuan: “Urte hartan politika bateratuaren lehen erreforma egin zen, eta NPB zeharo aldatu zen. Ordura arte prezioen babesean oinarritu zen politika, baina gero eta garrantzi handiagoa hartzen hasi ziren diru-laguntzak”.

Garaioko testuingurua kontuan hartu behar da: 90eko hamarkadaren hasieran, nazioarteko itun berrien negoziatioetan buru-belarri murgilduta zebilen EB. Ondorioa gero eta liberali-

NPBren diru-laguntzak bi zutabetan banatuta daude. Alde handiz bigarrena da ahulena, nekazaritza eta abeltzaintza eredu jasangarriagoa lortzen lagundu dezakeena hain zuzen. Sindikatuen ustez lerro hori indartu beharko litzateke, eta horretarako modu bat izan liteke benetako aktibitatek eduki gabe lehenengo zutabeko laguntzak hartzen dituztenak banaketatik kanpo uztea. Besteak beste, mendi inguruetan ari direnentzako laguntzak bideratzen ditu bigarren zutabeak. Argazkian, behiak Gorbeia inguruan.

zazio handiagoa izan zen, eta hor ez zeukan lekurik NPB bezalako politika batek, ez ordura arteko ezaugarriekin bederen. Merkatuen kontrola, nekazariak beren produktuen truke jasotzen zituzten prezioen berme politikoa barne, ahultzen hasi zen, eta ahultzen segitu du ordutik egindako erreforma bakoitzarekin.

Laborariak horren ondorioz izandako galarak arintzeko, Europak diru-laguntzak ezarri ditu. Hogei urteotako bilakabide hori laburbiltzen du Mixel Berhokoirigoinek emandako datu honek: “NPB sortu zenean, haren aurrekontuaren %80 merkatuaren kontrolatzera bideratua zen. Gaur egun, %7 baizik ez”. 2014an, NPB diru-laguntza multzo bat da batez ere.

“Antibiotikoen” tranpa

Gauden-gaudenean, ez dago laborantzaren biziraupena ulertzerik diru-laguntzarik gabe. Baina sistema maltzurra da, sindikatuen ustez. Haiekiko menpekotasuna desager dadila nahi duten arren, sektoreak ezinbestekoak ditu laguntzak gaur-gaurkoz. “Antibiotikoak bailiran hartzen ditugu”, diosku Garikoitz Nazabalek, Gipuzkoako EHNEko kideak; “infekzioari aurre egiteko behar duzu, baina aldi berean zure defentsak ahultzen dituzu”.

Nazabalen iritziz, baserritarrak laguntzetatik ez baizik eta beren lanetik bizi behar dira, “eta azken batean lan hori herritarrentzat elikagaiak ekoiztea da”. Alde batetik, herritar guztiek erosteko moduko prezioan merkaturatu behar dira produktu horiek, eta bestetik laborarien etorkizuna ziurtatzeko moduko prezioak izan behar dute. “Baina eskema horrek ez du dagoeneko funtzionatzen”, kexu da Nazabalek.

Espaniako Estatuan, nekazari eta abeltzainek euren produktuengatik jasotako prezioa oso gutxi handitu zen 2000 eta 2012 urteen bitartean; aldiz, elikagaien Kontsumoko Pre-

Emakume laborariak, baztertuetan baztertuenak

2012AN, Isabel de Gonzalo eta Leticia Urretabizkaia ikerlariek *Las mujeres baserritarras; análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria* (Emakume baserritarrak: analisia eta etorkizunerako aukerak Elikadura Burujabetzaren ikuspuntutik) lana argitaratu zuten. Liburuaren lehen zatian, Isabel de Gonzalok xehe ziharduen NPBren historiaz eta gaur egun Hego Euskal Herriko laborantzan duen eraginaz, genero ikuspegitik gehienbat. Egileak azpimarratu zuten 1992tik hona izandako erreformek emakume nekazariari egin dietela bereziki kalte. Batez ere, 2003tik aitzinakoez.

De Gonzaloren esanetan, duela hamarkada bat inguru diru-laguntza desakoplatuak –hau da, ekoizpenari ez baizik eta lur edo ganadu jabetza hutsari lotutakoak– indarrean jartzeak mesede egin zien tamaina handiko haztegiei, eta kalte, asma daitekeenez, ekoizpen

eredu txiki eta tradizionalai. Emakume nekazarien gehiengoak dagoen ereduai, hain zuzen.

Hego Euskal Herrian NPBk emandako diru-laguntzak genero ikuspegitik aztertu zituen De Gonzalok bere ikerketan, eta horretarako informazio faltari aurre egin behar izan zion. Izan ere, laguntza horien banaketari buruzko datuak ez dira egoten sexuaren arabera sailkatuta. “Datu faltak esanahi politiko garrantzitsua du”, idatzi zuen, “ezinezkoa baita neurtzea diru-laguntzak banatzean berdintasun irizpidea kontuan hartzen ari ote den”. Ikerlariak laguntza-hartzaileen zerrendara jo behar izan zuen, eta banan-banan begiratu bakoitzaren izen-abizena. Baina 2008ko kopuruekin konformatu behar izan zuen, urte hartatik indarrean den datuen babeserako legediak galazari egin baitzion hartzaileen nor-tasuna ezagutzera.

De Gonzalok 2008ko datuekin moldatu zituen grafikoak, aldame-neko orrialdean ageri diren berak. Argi ikus daiteke pertsona fisikoen kasuan –kontuan izan behar da hartzaile batzuk enpresak direla, ez banakoak–, emakumei NPBren diru-laguntza gutxiago iristen zaiela gizontzuei baino. Eta zenbat eta handiagoa laguntzaren diru kopurua, orduan eta andrazko portzentaje txikiagoak jasotzen du, laugarren grafikoak erakusten duenez.

2008koak ez dira datu berriak, hala ere. Salbuespen modura, Espainiako Gobernuak sexuen arabeko sailkapen eta guzti argitaratu zituen 2012ari zegozkion zenbait datu. Europako laguntzak eskuratzen dituztenei dagokienez, portzentajeak 2008ko berdinak dira ia: Hego Euskal Herrian, NPBko diru-laguntza zuzenak jaso zituzten pertsona fisikoen %68 gizonak izan ziren.

zioen Indizea %50 igo zen. Ekoizleengandik kontsumitzaileenganako bidean bitartekariak daude, gero eta tartaren zati handiagoa bereganatzen dutenak. 2011n Mugarik Gabeko Albaitariak elkarteak egindako txosten batek dio Espainiako Estatuan elikagaien azken prezioa, batez beste, ekoizleek jasotzen dutena baino 4,5 aldiz handiagoa dela. Espekulazioa nagusi den sistema horrek iraun bitartean, nekazariak, nahi eta nahi ez, diru-laguntzen oxigenoaren beharra dutela azpimarratu du Gari-koitz Nazabalek. Harekin bat dator EHNE-Bizkaiako Andoni Garcia: “Batez beste, baserritarrek irabazten dutenaren %30 diru-laguntzetatik dator, eta sektore batzuetan %70era heldu daiteke. Pentsa zer litzatekeen kenduz gero...”.

Diru-laguntza sistema, txikien kalterako

Ezinbestekoak izanagatik, EHNE-Bizkaiak pozoizat ditu NPBren diru-laguntzak –ez denak–, “horien izenean nekazariarentzako prezio artifizialki baxuak justifikatzen direlako oraindik”. Azkenerako, laguntzen adabakia ez da nahikoa baserritar txiki askok, etsita, aktibitate albu batera lagatzeko.

Lur kontzentrazio handiei eta laborantza industrialari egiten zaie mesede, diru-laguntzen banaketa ez baita orekatua


Azken batean, lur kontzentrazio handiei eta laborantza industrialari egiten ari zaie mesede, diru-laguntzen banaketa ez baita inondik inora orekatua: zenbat eta lur gehiago, orduan eta laguntza handiagoa. Transnational Institute elkarteak plazaratu berri duen lan batek dioenez, 2011n Europako etxaldeek %1,5ek, handienek, laguntzen herena bereganatu zuten.

Frantziako Estatuan, laguntzaren %44 etxaldeek %13rentzat izan zen. Eta Espainiako Estatuako laguntzen %75 hartzaileen %16rentzat izan zen. Pribilejiadun gutxiengo hori elikagaien industriako konpainia erraldoiek eta lurjabe handiek osatzen dute gehienbat, prentsa arrosaren azaletan maiz agertzen diren sona handiko zenbait pertsonaia barne.


NPBren bi zutabeak

Desorekak ez dira hor bukatzen. Aurrera jarraitu aurretik, ordea, komeni da diru-laguntza sistemari buruzko zenbait xehetasun esplikatzera. Mixel Berhokoirigoinek emandako azalpena baliatuko dugu horretarako: “NPBk laborantzara ekartzen dituen laguntzak bi zutabetan antolatuak dira. Estatu batetik bestera


Emakume eta gizonen portzentajeak, Hego Euskal Herrian NPBren diru-laguntzak jaso zituzten pertsona fisikoen guztizkoarekiko (2008)




Emakumeek eta gizonen jasotako diru kopuruaren portzentajeak, Hego Euskal Herrian pertsona fisikoek jasotako NPBren diru-laguntzaren guztizkoarekiko (2008)



Pertsona bakoitzak jasotako batez besteko diru-laguntza, sexuen arabera



Emakume eta gizonen portzentajeak, jasotako diru kopuru tartearen arabera



Iturria: *Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde la Soberanía Alimentaria* (Isabel de Gonzalo Aranoa, Leticia Urretabizkaia Gil).

aldatzen da, baina orokorki, EBN, laguntzen %80 lehen zutaberako da, eta %20 bigarrenarako. Bigarren hori lotua da lurraldeari, kalitateari, biodibertsitatearen kontserbazioari... Helburu soziala dute, lurralde eta ingurumen ikuspegiak indartzen dituzte, mendiko laborantzari laguntzen diote, biologikoari.... Lehen zutabea, aldiz, ekoizteko ahalmenari –hektarea edota abere kopuruan neurtua– ematen zaion laguntza da, baserriaren handitasunari lotua eta bestelako justifikaziorik gabe, edo justifikazio txikiarekin”.

Berhokoirigoinak aipatutako justifikazio falta horri desakoplatze esaten zaio. 1992an NPBren merkatu-kontrol mekanismoak ahultzen hasi zirenean, laborarien galerak konpentsatzeko laguntzak ekoizpenarekin lotuta zeuden. Hau da, hartzaileak frogatu egin behar zuen elikagaiak ekoizten zituela; bestela esanda, laguntza akoplatuak ziren. Aldaketaren hasiera izan zen hori, baina sindikatuen ustez batez ere mende honen lehen urteetako erreformek jarri zuten sektorea hankaz gora. “Orduan hasi zen benetan prezioa aintzat ez hartzen”, dio Andoni Garciak, “interbentzio publikoa are txikiago bihurtu zen, eta lagun-

Laborantzarako laguntza zuzenak jasotzen dituztenen kopurua askoz txikiagoa izan beharko litzateke, sindikatuen ustez

tzak desakoplatzen hasi ziren”. Desakoplatzeak esan nahi du ez dela nekazaritza edo abeltzaintza aktibitatek justifikatu behar diru-laguntzak jasotzeko, edo nahikoa dela oso aktibitate apala izatea.

Espainiako Estatuan, errenta osoaren laurdena nekazaritza jasotzea aski da baserriar profesionaltzat hartua izateko. Gutxi, ENBA

sindikatuak Xabier Iraolaren iritziz. EHNE konfederazioak eta EHNE-Bizkaiak bezala, lehen zutabeko laguntzak –laguntza zuzenak ere esaten zaie– jaso ditzaketenen kopurua askoz txikiagoa izan beharko litzatekeela uste du ENBAk. “Baina Madrilen interes politikoak daude betiko lurjabe batzuei diru-laguntzak ematen jarraitzeko”, sala-

tu du Iraolak. Andoni Garciak uste du, berriz, Espainiako Estatuan –beste horrenbeste Hego Euskal Herrian– laguntza desakoplatuak jasotzen dituztenen heren batek baizik ez lukeela berez horretarako eskubidea eduki behar. “Datu esanguratsu bat: Estatuan 900.000 inguru laguntza hartzaile dago, eta horietatik 300.000 erretiratu daude dagoeneko”.

Desakoplatzea ez da erabatekoa, bestalde. Ekoizpenari lotutako laguntza batzuk manten-

